## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 1395

EBAZPENA, 2008ko otsailaren 12koa, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Klaustroko kideak aukeratzeko Hauteskundeei Buruzko Behin-Behineko Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emateko dena.

AURREKARIAK

Estatutuak Garatzeko Batzordeak, Donostia-San Sebastiánen 2007ko azaroaren 14an egindako bileran, kontuan izan zituen apirilaren 13ko 4/2007 Lege Organikoak, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldarazten duenak, eragindako ondorioak, batez ere unibertsitateko ohiko gobernu organoen osaeran dakartzan aldaketak, eta, horrela, bada, honakoak adierazi zituen:

1.– Komenigarria litzateke UPV/EHUko Klaustroa Hautatzeari eta Haren Funtzionamenduari buruzko Arautegiaren tramiteak bertan behera uztea (2006ko abenduaren 14ko Klaustroan aurkeztutakoa), harik eta Estatutuetara egokitzeko edo Estatutuok aldarazteko hartu beharreko erabakiak hartu arte.

2.– Hala ere, premiazkoa da Klaustroko kideak aukeratzeko arautegi bat onartzea, behin-behinekoa baino ez bada ere, eta arautegi hori aipatutako legeak ekarri dituen aldaketara eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko legedira egokitzea. Berdintasunaren lege horren arabera, kide anitzeko organoetarako ahalegina egin beharko da gizonen eta emakumezkoek ordezkaritza parekatua izan dezaten, betiere hori posible den heinean, eta kontuan izanda ordezkaritza parekatutzat hartuko dela kide anitzeko organoan sexu bietako jendea dagoenean ordezkatuta gutxienez % 40an.

Unibertsitateko Klaustroak, 2008ko urtarrilaren 30ean, Klaustroko kideak aukeratzeko hauteskundeei buruzko behin-behineko arautegia onartu zuen, I. eranskinean jasotakoa. Hori guztia Unibertsitateko Klaustroak arautegiak garatzeko bete beharreko prozedurari jarraituz (prozedura hori Klaustroak berak zehaztu zuen 2004ko abenduaren 16ko bileran).

Azkenik, UPV/EHUko Estatutuetako 258.1. d) atalak dio, idazkari nagusiak bermatu behar duela UPV/EHUko erabakiak argitaratzea; eta, bestalde, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemaren buruzkoak, dio erabakiak oso-osorik argitaratu behar direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Horregatik guztiagatik, honakoa

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

## 1395

RESOLUCIÓN de 12 de febrero de 2008, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena la publicación de la Normativa Provisional de Elección de los y las Claustrales.

ANTECEDENTES

La Comisión para el desarrollo estatutario que le corresponde al Claustro, reunida en Donostia-San Sebastián el 14 de noviembre de 2007, a la vista de las consecuencias derivadas de las reformas introducidas por la Ley Orgánica 4/2007 de 13 de abril por la que se modifica la Ley Orgánica 6/2001 de 21 de diciembre de Universidades, particularmente en lo que se refiere a la composición del órgano de gobierno ordinario de la Universidad, considera:

1.– Que conviene paralizar la tramitación del Reglamento de elección y funcionamiento del Claustro Universitario de la UPV/EHU que fuera ya presentado en el Claustro de 14 de diciembre de 2006, para que sea retomado una vez se adopten las decisiones correspondientes en materia de adaptación estatutaria o de reforma de los mismos.

2.– Que, no obstante lo anterior, parece urgente la aprobación de una normativa de elección de los y las claustrales, al menos provisional, adaptada a las reformas intervenidas tanto por la ley mencionada como por la legislación en materia de igualdad de mujeres y hombres. Esta indica, particular respecto de la composición de los órganos colegiados que habrá de procurarse una composición equilibrada entre mujeres y hombres, salvo que no sea posible por razones fundadas y objetivas debidamente motivadas, considerándose una presencia equilibrada cuando en los órganos colegiados los dos sexos están representados al menos en un 40%.

Seguido el procedimiento de desarrollo normativo encomendado al Claustro Universitario que este mismo órgano estableció en su sesión de 16 de diciembre de 2004, el Claustro Universitario, con fecha 30 de enero de 2008, aprobó la Normativa Provisional de elección de los y las claustrales en los términos recogidos en el anexo.

A su vez, el artículo 258.1 de los Estatutos de la UPV/EHU en su apartado d), encomienda al Secretario General garantizar la publicidad de todos los acuerdos de la UPV/EHU, que según se establece en la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, se materializará mediante su íntegra publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por todo ello,

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Agindua ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Klaustroko kideak aukeratzeko hauteskundeei buruzko behin-behineko arautegia argitaratzeko, eranskinean ageri den moduan.

***Bigarrena.***– Arautegia indarrean sartuko da argitaratu eta biharamunean.

***Hirugarrena.***– Ebazpen hau behin betikoa da eta administrazio bidea agortzen du. Haren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, eta hilabeteko epea dago horretarako, erabaki hau eman duen organo berberaren aurrean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegien aurrean, bi hilabeteko epean.

Leioa, 2008ko otsailaren 12a.

Idazkari nagusia,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

ERANSKINA

KLAUSTROKO KIDEAK AUKERATZEKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO ARAUTEGIA

***1. artikulua.***– 1.– Honakoak dira Unibertsitateko Klaustroko kide:

– errektorea (Klaustroko burua izango da)

– idazkari nagusia (Klaustroko idazkaria izango da),

– gerentea, eta

– hirurehun kide gehiago era honetara banatuta:

a) unibertsitatearekin lotura iraunkorra duten irakasle doktoreak: 153 (% 51)

b) bestelako irakasle eta ikertzaileak: 54 (% 18).

c) ikasleak: 60 (% 20).

d) administrazio eta zerbitzuetako langileak: 33 (% 11).

2.– Hauek dira lehenago aipatutako hauteskunde talde bakoitza osatzen duten kideak:

a) UPV/EHUrekin lotura iraunkorra duten irakasle doktoreak, hau da: unibertsitateko katedradunen kidegoetakoak; unibertsitate eskoletako katedradunen kidegoetakoak; unibertsitateko irakasle titularrak; eta unibertsitate eskoletako irakasle titularrak, baldin eta doktore titulua badute. Era berean, talde honetan sartuko dira kontratupeko irakasle eta ikerlari doktoreak, betiere, UPV/EHUrekin lortura iraunkorra badute.

RESUELVO:

***Primero.***– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Normativa provisional de elección de las y los claustrales, según lo dispuesto en el anexo.

***Segundo.***– Esta Normativa entrará en vigor al día siguiente de su publicación.

***Tercero.***– Esta Resolución por ser definitiva, pone fin a la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que la dictó o recurso contencioso-administrativo ante los Tribunales de lo Contencioso de Bilbao en el plazo de dos meses.

En Leioa, a 12 de febrero de 2008.

El Secretario General,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

ANEXO

NORMATIVA PROVISIONAL DE ELECCIÓN DE LAS Y LOS CLAUSTRALES

***Artículo 1.***– 1.– El Claustro Universitario se compone por:

– el Rector o la Rectora, que lo preside,

– el Secretario o Secretaria General, que actúa como Secretario o Secretaria del Claustro,

– el o la Gerente, y

– trescientos miembros más distribuidos de la siguiente manera:

a) Profesorado doctor con vinculación permanente a la Universidad: 153 (51%).

b) Otro personal docente e investigador: 54 (18%).

c) Estudiantes: 60 (20%).

d) Personal de administración y servicios: 33 (11%).

2.– Integran cada uno de los cuerpos electorales anteriores:

a) Profesorado doctor con vinculación permanente a la UPV/EHU, esto es, las y los pertenecientes a los Cuerpos de Catedráticos de Universidad, Catedráticos de Escuela Universitaria, Profesores Titulares de Universidad, y los y las Profesoras Titulares de Escuela Universitaria que tengan el título de Doctor. También se integrará en este sector el personal docente e investigador contratado doctor con vinculación permanente a la UPV/EHU.

b) Gainerako irakasle eta ikerlariak, aurreko taldean sartzen ez direnak.

c) Ikasketa ofizialetan matrikulatutako ikasleak. Talde horretakoak izango dira berezko tituluetan eta Giza Zientzien unibertsitate tituluan matrikulatutako ikasleak. Hirugarren zikloko ikasletzat honakoak hartuko dira: doktoregoko programaren batean matrikula egina dutenak; ikertzeko gaitasuna aitortuta izanik eta tesi proiekturako tutoretza-matrikula egina izanik, ez dutenak tesiaren defentsa egin.

d) Administrazio eta zerbitzuetako langileak: UPV/EHUko funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratuko langile finkoak eta aldi baterakoak, beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak baldin eta, indarreko legeria beterik, UPV/EHUn lan egiten badute, eta konfiantzazko langileak baldin eta lanpostuen zerrendan izaera horrekin agertzen badira.

3.– Ahalegina egingo da bi sexuen ordezkaritza parekatua izateko, betiere, hori posible bada. Posible ez denean, arrazoi sendoak aurkeztu beharko dira, behar bezala egiaztatuak. Ordezkaritza parekatutzat hartuko da kide anitzeko organoan sexu bietako jendea dagoenean ordezkatuta gutxienez % 40an.

*2. artikulua.–* 1.– Hauteskunde Batzorde Nagusiak egingo du irakasle eta ikertzaileek Klaustroan izango dituzten ordezkarien banaketa, kontuan hartuta ikastegietan duten kide kopuruaren proportzio erlatiboa eta arduraldiaren haztapena. Era berean, ikastegiek ordezkari bana izango dute klaustroan, ikastegian nagusi den irakasleen kidegokoa.

2.– Ikastegi bakoitzak gutxienez ikasleen ordezkari bat izango du Klaustroan. Gainontzeko ordezkarien banaketa ikastegi bakoitzean guztira dagoen ikasle kopuruaren zuzenki proportzionala izango da.

3.– Administrazio eta zerbitzuetako langileek Klaustroan izango dituzten ordezkariak banatuko dira talde horrek campus bakoitzean duen kide kopuruaren proportzio erlatiboaren arabera.

4.– Arduraldiaren eta mailen haztapena honela egingo da:

a) Arduraldi osoko irakasleak: puntu bat.

b) Arduraldi partziala eta bost eta sei orduko kontratua duten irakasleak: 0,75 puntu.

c) Arduraldi murriztua eta lau eta hiru orduko kontratua duten irakasleak: 0,37 puntu.

*3. artikulua.–* 1.– Talde bakoitzaren ordezkariak taldeko kideek beren artean eta artetik aukeratuko dituzte.

2.– Hautesle eta hautagai izango dira matrikula indarrean duten ikasleak eta izendapenaren bidez edo in-

b) Otro personal docente e investigador no incluido en el apartado anterior.

c) Estudiantes matriculados en alguna de las titulaciones oficiales. Se incluirán también en este sector los matriculados en títulos propios y en el Título Universitario de Ciencias Humanas. Es alumno o alumna de tercer ciclo la persona matriculada en un programa de doctorado o quien, habiendo obtenido la suficiencia investigadora, haya formalizado su matrícula de tutoría para el proyecto de Tesis sin que haya procedido a su defensa.

d) Personal de administración y servicios: personal funcionario, interino y personal contratado laboral fijo y temporal de la UPV/EHU, personal funcionario de otras Administraciones Públicas que, de acuerdo con la legislación vigente, presten servicio en la UPV/EHU y el personal eventual que figure con tal carácter en la Relación de Puestos de Trabajo del personal de administración y servicios.

3.– Se procurará una composición equilibrada entre mujeres y hombres, salvo que no sea posible por razones fundadas y objetivas debidamente motivadas. Se considera una presencia equilibrada cuando en los órganos colegiados los dos sexos están representados al menos en un 40%.

*Artículo 2.–* 1.– La Comisión Electoral General realizará la distribución de representantes claustrales del personal docente e investigador de acuerdo con la proporción numérica relativa de los centros y la ponderación de los regímenes de dedicación. Cada centro tendrá, asimismo, un o una representante del colectivo de profesorado más numeroso en cada uno de ellos.

2.– Cada centro docente tendrá como mínimo un o una representante del alumnado en el Claustro. El número de representantes de las y los estudiantes restante, después de la asignación de este mínimo, será distribuido entre los centros docentes en proporción directa al total de estudiantes de cada uno de los mismos.

3.– La distribución de representantes claustrales del personal de administración y servicios se hará de acuerdo con la proporción numérica relativa a este sector en cada uno de los Campus Universitarios.

4.– La ponderación de los regímenes y niveles de dedicación será la siguiente:

a) Profesorado en régimen de dedicación completa: 1 punto

b) Profesorado en régimen de dedicación parcial y contratos de seis y cinco horas: 0,75 puntos.

c) Profesorado en régimen de dedicación reducida y contratos de cuatro y tres horas: 0,37 puntos.

*Artículo 3.–* 1.– La representación de cada sector será elegida por y de entre sus miembros.

2.– Serán electores o electoras y elegibles todas las personas que con nombramiento o contrato en vigor

darreko kontratu baten bidez Euskal Herriko Unibertsitatean zerbitzuak betetzen dituzten guztiek, betiere, errolda ixteko egunean jardunean badaude eta 1.2 artikuluan jasotako hautesle taldeetako erroldaren batean agertzen badira.

3.– Hauteskundeetan botoa emateko edo hautagai izateko baldintzak hauteskundeetarako deian hautesle erroldak ixteko adierazitako egunean bete behar dira.

4.– Ezin izango da errolda batean baino gehiagotan egon, eta kideren bat batean baino gehiagotan ageri bada, jarduera nagusia zein taldetan betetzen duen izango da kontuan; ikastegietako erroldetan, kontratuen arabera zeinetan daukan antzinatasun handiena izango da kontuan.

5.– Ikastegi atxikietako ikasleak, administrazioko langileak eta irakasleak ez dira ez hautesle ez hautagai izango.

*4. artikulua.–* 1.– Hautesleak kasuan kasuko hauteskunde mahaian emango du botoa; dena dela, botoa aldez aurretik emateko eskubideari buruz zehaztutakoa ere izan beharko da kontuan.

2.– Hautesle errolda eta, beraz, hauteskunde taldeen banaketa (hautagai edo hautesle izan zaitezkeen jakin ahal izateko), hauteskunde eguna baino hilabete bat lehenago itxiko da, betiere Gobernu Kontseiluak hauteskundeetarako onartzen duen egutegiari jarraituta.

3.– Hautesle errolda itxi eta, gehien jota, bost eguneko epean argitaratuko da.

4.– Ikastegiko hauteskunde batzordeak txostena egingo du, hautesle erroldek kontra egindako inpugnazioei buruzkoa, eta erabaki proposamenarekin batera Hauteskunde Batzorde Nagusira bidaliko du. Hauteskunde Batzorde Nagusiak egiaztatu egingo ditu erroldetan egindako zuzenketak, eta okerrik edo hutsik antzemanez gero, zuzendu egingo ditu.

*5. artikulua.–* 1.– Hauteskunde Batzorde Nagusiari dagokio emaitzak antolatu, kontrolatu eta aldarrikatzea, baita Unibertsitateko Klaustroko kideak hautatzeko prozesuaren aurkako inpugnazioak ebaztea ere (Hauteskunde Batzorde Nagusiak Idazkaritza Nagusian dauka egoitza).

2.– Hauteskunde Batzorde Nagusiko buruari zuzendutako idazki eta agiri guztiak nahitaez aurkeztu beharko dira unibertsitatearen erregistro orokorrean, ordutegia kontuan hartuta.

*6. artikulua.–* 1.– Unibertsitateko Klaustroko ordezkariak aukeratzeko hauteskundeetan, irakasle eta ikertzaileentzat (a eta b hauteskunde taldeak) ikastegia izango da hauteskunde barrutia.

2.– Ikasleen kasuan, hauteskunde barrutia ikastegia izango da. Doktoregoko, master ofizialetako eta berezko tituluetako ikasleen kasuan, honakoetako bat izan-

presten sus servicios en la UPV/EHU en la fecha de cierre de censo así como el alumnado, siempre y cuando figuren incluidos en el censo de uno de los cuerpos electorales según lo dispuesto en el artículo 1.2.

3.– Los requisitos exigidos para ejercer el derecho de sufragio activo o pasivo deberán reunirse a la fecha de cierre del censo electoral establecida en la convocatoria de las elecciones.

4.– En ningún caso se podrá estar en varios censos, prevaleciendo el del sector en el que preste su actividad principal y, si se trata de censos de centros, el que corresponda por razón de antigüedad en el contrato.

5.– No serán electores o electoras ni elegibles el alumnado, personal de administración y profesorado de centros docentes adscritos.

*Artículo 4.–* 1.– Todo elector y electora ejerce el derecho de sufragio en la Mesa Electoral que le corresponde, sin perjuicio de las disposiciones sobre depósito de voto.

2.– La fecha de cierre del censo y de la consiguiente determinación de los componentes de cada sector, a efectos de ser electoras y electores o elegibles concluirá un mes antes de la fecha de votación, que tendrá lugar conforme al calendario que se apruebe por el Consejo de Gobierno.

3.– La publicación del censo se efectuará en un plazo máximo de 5 días después del cierre del mismo.

4.– La Comisión electoral del centro emitirá un informe sobre las impugnaciones al Censo remitiéndolas, junto con su propuesta de Resolución a la Comisión electoral general. La Comisión electoral general verificará la corrección de los censos, procediendo a su resolución y, en su caso a la subsanación de errores u omisiones.

*Artículo 5.–* 1.– La organización, control, proclamación de resultados y resolución de las impugnaciones del proceso de elección de miembros del Claustro Universitario corresponderá a la Comisión electoral general, con sede en la Secretaría General de la Universidad.

2.– Todos los escritos y documentos que se dirijan al Presidente o Presidenta de la Comisión electoral general habrán de presentarse obligatoriamente en cualquiera de las oficinas que integran el Registro General de la Universidad, dentro del horario del mismo.

*Artículo 6.–* 1.– Para la elección de representantes al Claustro Universitario por el personal docente e investigador (cuerpos electorales a y b) la circunscripción será el centro.

2.– La circunscripción electoral para el alumnado será el Centro. El alumnado de doctorado, másteres oficiales o títulos propios será integrado en alguno de los

go da barrutia: ikasketak ematen diren ikastegia edo ikastegi baten baino gehiagotan ematen badira, programaren ardura daukan sailaren edo institutuaren egoitzari dagokion ikastegia. Hori posible ez bada, programako zuzendariaren ikastegia izango da barrutia. Giza Zientzietako ikasleen kasuan, berriz, eskolak emateko erabiltzen den lekua.

3.– Administrazio eta zerbitzuetako langileen hauteskunde barrutia UPV/EHU osatzen duten hiru campusetako bakoitza da.

*7. artikulua.*– 1.– Ordezkariak aukeratzeko hauteskunde eguna behin zehaztuta, hauteskunde batzorde bana eratuko da hauteskunde barrutietan. Batzorde hori barrutiko hauteskunde talde bakoitzeko kide batez osatuta egongo da, ikastegiko batzarreko kideen artetik aukeratuta. Batzordeburua dekano edo zuzendaria izango da, edo hark eskuordetutako kideren bat, eta idazkaria, berriz, idazkari akademikoa. Ikastegiko hauteskunde batzordeak indarreko agintaldia badauka, bera izango da arituko dena.

2.– Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalak (AZP) campus bakoitzean izango duen hauteskunde batzordeko burua gerentea edo horrek eskuordetutako pertsona izango da, eta horrez gain, beste bi kide izango ditu campuseko talde horretako kideen artetik zozketaz aukeratuak.

*8. artikulua.*– 1.– Barruti bakoitzeko gorabeherak kontuan hartuta, batez ere ikastegiak edo lan lekuak bata bestearengandik urruti daudenean, hauteskunde batzordeek hauteskunde mahai bat baino gehiago eratzea erabaki dezakete.

2.– Hauteskunde mahai bakoitzak mahaiburu bat eta hiru mahaikide izango ditu. Edozelan ere, bi mahaiburu (titularra eta ordezkoa) eta sei mahaikide (3 titular eta 3 ordezko) izendatuko dira, behar bezala ordenatuta. Guztiak ados jarrita, aukera izango dute eginkizunak banatzeko eta aktan jasota ageri beharko da. Horiek guztiak barrutiko hautesleen artetik, eta, egoki denean, kasuan kasuko hauteskunde taldeetako kideen artetik, aukeratuko dira barrutiko hauteskunde batzordeak egindako zozketaren bidez. Ez da zozketan sartuko hautagai izateko onartutakorik.

3.– Iraupena eta garrantzia kontuan hartuta Gobernu Kontseiluak titulazio ofizial eta berezko tituluen pareko hartuko dituen ikasketen kasuan, Klaustrorako hauteskundeetarako mahaietako kideak Hauteskunde Batzorde Nagusiak egindako zozketaren bidez aukeratuko dira.

4.– Hauteskunde mahaiko kide izatea egokituz gero, nahitaezkoa da eginkizun hori betetzea, behar be-

Centros: en principio, en el Centro en el que se impartan las enseñanzas; si se imparten en varios Centros, en el Centro al que corresponda la sede del Departamento o Instituto en el que desarrolla el programa; en defecto de lo anterior, la circunscripción electoral será la sede del Centro al que pertenezca el Director o Directora del Programa. En el caso del alumnado del título universitario de Ciencias Humanas será la sede en la que se impartan esas enseñanzas.

3.– La circunscripción electoral del personal de administración y servicios será cada uno de los tres Campus que integran la UPV/EHU.

*Artículo 7.*– 1.– Una vez fijada la fecha de votación, para la elección de las y los representantes se constituirá en cada circunscripción electoral una Comisión electoral, compuesta por un representante de cada cuerpo electoral a elegir por esa circunscripción, que en los centros académicos se designará de entre las y los miembros de su Junta, que será presidida por el Decano, Decana, Directora o Director, o persona en quien delegue y actuará de secretario el Secretario o Secretaria Académica del centro. En el caso de que la Comisión Electoral del Centro tenga mandato en vigor, será ésa la que actúe.

2.– La Comisión electoral del PAS de cada Campus estará presidida por el o la Vicegerente de Campus o persona en quien delegue y por dos representantes designados a sorteo de entre las personas de este colectivo en el Campus correspondiente.

*Artículo 8.*– 1.– Cuando las circunstancias de cada circunscripción así lo aconsejen, en particular debido a la distancia geográfica entre los centros o lugares de trabajo, las respectivas Comisiones electorales podrán acordar la existencia de más de una Mesa Electoral.

2.– Cada Mesa Electoral estará formada por un presidente o presidenta y tres vocales. No obstante, se designarán dos presidentes o presidentas (titular y suplente) y seis vocales (3 titulares y 3 suplentes) debidamente ordenados y que podrán organizar de mutuo acuerdo el desarrollo de sus funciones respectivas reflejándolo en el acta de desarrollo de la sesión. Todos y todas ellas serán designadas por sorteo, realizado por la Comisión electoral de cada circunscripción, de entre el electorado perteneciente a la misma y, en su caso, al sector correspondiente. No entrarán en el sorteo las personas que hayan sido proclamadas previamente como candidatos o candidatas.

3.– En el caso de las enseñanzas que por su duración e importancia hayan sido asimiladas por el Consejo de Gobierno a efectos de elecciones a claustro, el sorteo de los miembros de la Mesa Electoral se hará por la Comisión electoral general.

4.– La condición de miembro de una Mesa electoral es irrenunciable salvo que concurra justa causa debida-

zala egiaztatutako bidezko arrazoirik izan ezean. Horrelakoetan, idatzi bidez egin beharko zaio uko izendapenari, idatzia hauteskunde batzordeko idazkariari zuzenduta eta izendapenerako jakinarazpenean zehaztutako epearen barruan.

5.– Mahaia eratzean ez bertaratzeak erantzukizunak eskatzea ekar dezake, eta horrelako egoeratan, hauteskunde mahaiko buruak edo, hala egokituz gero, kasuan kasuko hauteskunde batzordeak, hautesleen artetik berak nahi duena aukeratuko du.

6.– Mahaia eratzeko akta mahaiburuak, mahaikideek eta ikuskariek bete behar dute bozketa hasi aurretik, Hauteskunde Batzorde Nagusiak onartutako ereduari jarraituz.

7.– Hauteskunde prozesuan gorabehera larririk gertatuz gero, mahaiburuak Hauteskunde Batzorde Nagusiari jakinaraziko dio lehenbailehen, eta gainera horren berri jaso beharko du aktan.

***9. artikulua.***– 1.– Klaustroko ordezkariak hautatzeko hautagai zerrendak kolektiboak, itxiak eta ordenatuak izango dira, eta kasuan kasuko barrutiko hauteskunde batzordeari aurkeztu behar zaizkio hautagai guztien sinadurarekin. Hautagai zerrendan jasotako gutxieneko hautagai kopurua ikastegi eta talde bakoitzerako zehaztutako kideen erdia izan behar da, eta gauza bera campus bakoitzeko administrazio eta zerbitzuetako langileen talderako. Horrez gain, sexuen arteko oreka gorde behar da eta zerrendan, bata emakumezkoa, bestea gizonezkoa, bata emakumezkoa, bestea gizonezkoa izan behar dira.

2.– Hautagai zerrendak aurkezteko idatzia UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoetan aurkeztu beharko da, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegiari jarraiki, eta, betiere, bozketa eguna baino hamar egun baliodun baino lehenago.

3.– Hauteskunde barruti bakoitzeko hauteskunde batzordeak egiaztatu egin behar du hautagai bakoitzak baldintzak betetzen dituela, egon daitezkeen inpugnazioak ebatziko ditu eta, gehienez ere hiru eguneko epean, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

4.– Hauteskunde batzordeek toki egokietan argitaratuko dituzte hauteskundeetarako hautagaien zerrendak.

5.– Hautagaiak behin-behinekoz aldarrikatuta, inpugnazioak aurkeztu ahal izango dira unibertsitateko erregistro orokorretan, hauteskundeen egutegian horretarako zehaztukotako epean. Hauteskunde batzordeak inpugnazioak ebatzi, hautagai zerrendak behin betiko aldarrikatu eta agindua emango du ikastegi bakoitzeko iragarki oholean, eta administrazio eta zerbitzuetako langileenak campuseko iragarki oholean argitaratzeko.

6.– Aldarrikatutako hautagai zerrendak jendaurrean egongo dira bozketaren hurrengo egunera arte.

mente acreditada, mediante escrito remitido al Secretario o Secretaria de la Comisión electoral correspondiente, en el plazo que se determine en el escrito de notificación de su designación.

5.– La inasistencia a la constitución de la Mesa determinará la exigencia de responsabilidad y las y los ausentes podrán ser suplidos por libre designación de la Presidencia de la Mesa electoral, o en su caso, de la correspondiente Comisión electoral, entre el electorado.

6.– El Acta de Constitución de la Mesa se deberá cumplimentar por la Presidencia, vocalías e interventores o interventoras antes del inicio de la votación, según el modelo que apruebe la Comisión electoral general.

7.– La Presidencia dará cuenta inmediata a la Comisión electoral general de cualquier incidencia que altere gravemente la continuidad de la sesión electoral, haciéndola constar, además, en el acta correspondiente.

***Artículo 9.***– 1.– Para la elección de las y los representantes se presentarán candidaturas colectivas cerradas y ordenadas ante la Comisión electoral correspondiente, firmadas por todos y todas las candidatas. Las candidaturas deberán cubrir al menos la mitad de los puestos asignados al centro académico en el respectivo sector, o del número de representantes del personal de administración y servicios correspondientes al Campus y garantizarán la presencia equilibrada, en orden alternativo, de mujeres y hombres.

2.– El escrito de presentación de candidaturas será entregado en las oficinas del Registro General de la UPV/EHU, en el plazo previsto en el calendario aprobado por el Consejo de Gobierno, que expirará al menos diez días hábiles antes de la fecha de votación.

3.– La Comisión electoral de cada circunscripción verificará el cumplimiento de los requisitos de cada uno de los y las candidatas, resolverá las posibles impugnaciones y proclamará las candidaturas en un plazo máximo de 3 días.

4.– Las Comisiones electorales darán publicidad en lugares adecuados a las candidaturas presentadas.

5.– Efectuada la proclamación provisional, se podrán presentar impugnaciones en las oficinas del Registro General de la Universidad, en el plazo al efecto señalado en el calendario electoral. La Comisión electoral general resolverá las impugnaciones, efectuando la proclamación definitiva de candidaturas y ordenando su publicación en el tablón de anuncios del centro y, en el caso del personal de administración y servicios, del Campus.

6.– Las candidaturas proclamadas permanecerán expuestas hasta el día siguiente a la votación.

*10. artikulua.–* 1.– Hautagai zerrendak behin betiko aldarrikatzen direnetik botaziorako 24 ordu falta diren arte, hautagaiek hauteskunde kanpaina egin ahal izango dute.

2.– Hautagaiek propagandarako jardueren egutegia antolatuko dute hauteskunde batzordearekin ados jarrita.

3.– Ikasleen zerrenda bakoitzak eskolako ordubete izango du ikastegi bakoitzean programa azaltzeko. Ordu horretan eten egingo dira eskolak, eta leku egokia utziko zaio zeregin hori betetzeko. Irakasleek ere eten bera izango dute hauteskunde kanpainako jarduerak egiteko.

4.– Administrazio eta zerbitzuetako hautagai zerrendek guztira ordubete izango dute ikastegi, zerbitzu eta atal bakoitzeko. Ordubete hori lanaldiaren barruan hartuko da, ordaindutakoa izango da eta ez da berreskuratu behar.

*11. artikulua.–* 1.– Botoa emateko txartel ofizialak barrutiko hauteskunde batzordeak egingo ditu.

2.– Hauteskundeak eskola-ordutegiaren barruan egingo dira, eskola orduetan, eta bai goizez, bai arratsaldez, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegiari jarraituz. Ikastegiak behar bezala egiaztatuta eskaria eginez gero, Hauteskunde Batzorde Nagusiak baimena eman dezake ordutegi berezia zehazteko.

3.– Mahaiburuak boto emaileari nortasun agiriren bat eskatu eta identifikatu egingo du eta, ondoren, erroldan dagoela egiaztatu. Boto emaileak, orduan, boto txartela emango dio mahaiburuari edo mahaikide bati, eta hark unean bertan hautestontzian sartu du.

4.– Mahaiko kide batek markatu egingo du kasuan kasuko zerrendan botoa nork eman duen, mahaiburuak edo mahaikideak txartela boto kutxan sartu ahala.

5.– Botazioa amaitzeko ordua heltzean, mahaiburuak botazioa amaitzera doala iragarriko du ozen, eta ez dio inori gehiago gelan sartzen utziko. Dena dela, barruan dagoen norbaitek artean botorik eman ez badu, utzi egingo dio botoa ematen. Hurren, ikuskariek eta mahaikideek emango dute botoa, nahi izanez gero.

6.– Boto txartela aukeratzeko edo mahaiko buruari emateko ezintasunen bat daukatenek konfiantzako pertsona baten bidez egin ahalko dute.

*12. artikulua.–* Botazio egunean bere hauteskunde barrutian egoterik ez dutenei bozketan parte hartzea errazteko asmoz, ikastegietako dekanoek edo zuzendariek eta campusetako erretoreordetzek ikastegiko idazkaritzan edo atalekoan botoa aldez aurretik ematea onartuko dute botazio eguna baino lehenagoko jaiegun ez diren hiru egunetan eta Hauteskunde Arautegi Oro-

*Artículo 10.–* 1.– Desde la proclamación definitiva de las candidaturas y hasta veinticuatro horas antes del día de la votación, las candidaturas que lo deseen podrán realizar campaña electoral.

2.– Las candidaturas acordarán con la Comisión electoral correspondiente el calendario de actividades de propaganda.

3.– Cada candidatura del alumnado dispondrá de una hora lectiva por centro para la explicación de su programa, paralizándose la actividad docente durante esa hora y disponiendo de un local adecuado para tal fin. Dicha paralización se aprovechará igualmente para que las candidaturas de profesorado puedan llevar a cabo sus actividades de campaña electoral.

4.– Las candidaturas del personal de administración y servicios dispondrán globalmente de una hora dentro de la jornada laboral, retribuida y no recuperable, por cada centro, servicio o unidad.

*Artículo 11.–* 1.– Las papeletas oficiales de votación serán elaboradas por la Comisión de cada circunscripción electoral.

2.– Las votaciones se celebrarán dentro del horario lectivo, en horas hábiles y en turnos de mañana y tarde, conforme al calendario aprobado por el Consejo de Gobierno. La Comisión Electoral General podrá, en todo caso, autorizar horarios especiales, debidamente justificados, en determinados Centros que lo soliciten.

3.– La o el votante, una vez comprobada por la Presidencia de la Mesa su identidad, a través del documento acreditativo correspondiente, y su inclusión en el censo, entregará la papeleta a la Presidencia o vocalía, quien la introducirá acto seguido en la urna.

4.– Una o un miembro de la Mesa se encargará de señalar en la lista correspondiente las y los electores que han ejercido su derecho al voto, a medida que la Presidencia o vocalía introduzca las papeletas en la urna.

5.– A la hora fijada para el cierre de la sesión de la votación, la Presidencia de la Mesa anunciará en voz alta que va a concluir la votación, y no permitirá entrar a nadie más en el local. Se permitirá, no obstante, a las y los presentes, si alguno o alguna no han votado todavía, que emitan su voto. A continuación emitirán, en su caso, su voto los y las interventoras y las y los miembros de la Mesa.

6.– Los y las electoras que estuvieren impedidos para elegir la papeleta o entregarla al Presidente, podrán servirse de una persona de su confianza.

*Artículo 12.–* Con el fin de facilitar la participación en las votaciones a quienes por cualquier circunstancia no pudieran estar presentes en su circunscripción electoral el día señalado para tal fin, los Decanatos y las Direcciones de los Centros y los Vicerrectorados de Campus admitirán el depósito de voto en persona en la Secretaría del Centro o Sección, expidiendo el correspon-

korraren babesean. Botoa ematera hauteslea bera joan behar da eta ziurtagiria hartuko du. Ikastegietan lan egiten duten administrazio eta zerbitzuetako langileek ikastegian bertan eman ahal izango dute botoa aldez aurretik, AZPkoen Hauteskunde Batzordeak onartuko duen prozedurari jarraiki.

*13. artikulua.–* 1.– Botazioa behin amaituta, botoak zenbatuko dira ekitaldi publikoan eta Hauteskunde Arautegi Orokorrean xedatutakoaren arabera; betiere, hauteskunde barrutian, gutxien dela, taldeko % 5ek parte hartu badu.

2.– Botoak hondar handienaren sistema proportzionala erabiliz zenbatutakoan, eta aurkeztutako inpugnazioak ebatzita, mahaiburuak emaitzak emango ditu, eta bozketa-prestakuntzaren eta bilkuraren nondik norakoen akta ikuskatuko du. Akta hori mahaikide guztiek sinatuko dute, eta, behar izanez gero, baita ikuskariek ere.

3.– Aktak behin sinaturik, suntsitu egingo dira boto kutxetatik ateratako boto txartelak (ingurugirorako jasangarria den prozeduraren bat erabilita), baliogabeko botoak edo erreklamazioren bat izan dutenak izan ezik. Horiek aktari erantsiko zaizkio, eta mahaikideek akta behin sinatuta, Idazkaritza Nagusira bidaliko dira.

4.– Mahaiek argitara emango dituzte emaitzak aktak sinatu bezain laster. Horretarako, aktak fotokopiatu eta ikastegietako eta errektoreordetzetako hauteskunde oholetan eskegiko dituzte. Bestalde, berehala helaraziko diote Hauteskunde Batzorde Nagusiari bozketaren eta berorren gorabeheren akten kopia, faxez edo beste bide telematiko egoki baten bitartez. Akta horiek behar bezala sinaturik egongo dira.

5.– Prozedura bukatutakoan, barrutiko hauteskunde batzordeko buruak jatorrizko espedientea bidaliko dio Hauteskunde Batzorde Nagusiari, gehien jota, bi eguneko epean. Bestalde, batzorde horri inpugnazioak eta erreklamazioak aurkezteko epea zabalduko da.

*14. artikulua.–* 1.– Hauteskunde Batzorde Nagusiari dagokio aurkeztutako inpugnazioen inguruko erabakia hartzea eta behin betiko emaitzak aldarrikatzea.

2.– Inpugnazioak ebazteko bost eguneko epe luzaezina egongo da.

3.– Hauteskunde barruti batean izandako gorabeherak kontuan izanda, Hauteskunde Batzorde Nagusiak barruti horretarako beste hauteskunde prozesua bat irekitzea erabaki dezake.

4.– Inpugnazioak ebatzi ondoren eta, behar izanez gero, behin-behineko emaitzak aldatu ondoren, Hauteskunde Batzorde Nagusiak akta prestatuko eta ikastegi guztietara bidaliko du astebeteko epean, jende guztiak jakitun egon dadin.

diente justificante, durante los tres días no festivos anteriores a la fecha de votación y conforme a lo dispuesto por el Reglamento de Régimen Electoral General. El personal de administración y servicios adscrito a los centros podrá realizar, en todo caso, el depósito de voto en su centro, según el procedimiento que establezca la respectiva Comisión electoral del PAS.

*Artículo 13.–* 1.– Terminada la votación se procederá en acto público al escrutinio de los votos conforme a lo establecido por el Reglamento de Régimen Electoral General y siempre que se haya dado una participación mínima del 5% del respectivo colectivo en la correspondiente circunscripción electoral.

2.– Una vez computados los votos conforme al sistema proporcional del resto mayor, y resueltas las posibles reclamaciones presentadas, la Presidencia pronunciará los resultados y supervisará la elaboración del Acta de escrutinio y de desarrollo de la sesión, que será firmada por todas y todos los miembros de la Mesa y, en su caso, por las y los interventores.

3.– Firmadas las Actas las papeletas extraídas de las urnas se destruirán mediante procedimientos de sostenibilidad medioambiental, con excepción de aquellas que contengan votos nulos o que hayan sido objeto de reclamación, las cuales se acompañarán a las actas, una vez rubricadas por las y los miembros de la Mesa.

4.– Las Mesas harán públicos los resultados inmediatamente después, mediante fotocopia de éstas, que fijarán en los tablones de anuncios de los centros y de los Vicerrectorados. Así mismo, notificarán inmediatamente por FAX, u otro medio telemático igualmente adecuado, copia debidamente firmada de las actas de desarrollo y escrutinio a la Comisión electoral general.

5.– Finalizado el procedimiento, la Presidencia de la Comisión electoral de circunscripción enviará el original del expediente a la Comisión electoral general en un plazo máximo de dos días, abriéndose un período de impugnaciones y reclamaciones ante esta última Comisión.

*Artículo 14.–* 1.– Corresponde a la Comisión electoral general resolver las impugnaciones presentadas y proclamar definitivamente los resultados.

2.– Las impugnaciones serán resueltas en el plazo improrrogable de cinco días.

3.– Cuando en una determinada circunscripción electoral concurran circunstancias que así lo aconsejen, la Comisión electoral general procederá a la reapertura del proceso electoral en dicha circunscripción.

4.– Tras la resolución de las impugnaciones y modificación, en su caso, de los resultados provisionales, la Comisión electoral general elaborará un acta que será remitida a todos los centros en el plazo de una semana para conocimiento público.

*15. artikulua.*– 1.– Idazkari nagusiak agiria emango die hautetsiei behin betiko emaitzak aldarrikatu eta hamabost eguneko epean.

2.– Hautetsiek uko egin ahal izango dute Klaustroaren buruari aurkeztutako idatzi bidez. Hala ere, Unibertsitateko Klaustroaren bilera baino 10 egun lehenago aurkeztutako ukoak ez du eraginik izango Klaustroaren bilera bukatu arte. Horrelakoetan, zerrenda bereko lehengo kide ez hautetsia izendatuko da eta agiria emango zaio. Ordezkari izendatu berriaren ikastegiari izendapenaren berri emango zaio.

3.– Izendapena baliogabe geratuko da, egiaztatuz gero hautetsiak ez dituela betetzen beharrezko diren baldintza guztiak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

9.1 artikuluan zehaztutakoa ezarriko da, baldin eta kasuan kasuko taldean kide gutxien dituen sexukoak talde osoaren gutxienez % 25a badira. Hori bete ezean, hautagai zerrendan gizon eta emakumezkoek duten ehunekoa, gutxien dela, ikastegian edo campusean hauteskunde talde berak kide gutxien dituen sexurako daukan ehuneko bera izan behar da, eta zerrendan, edonola ere, emakumezko bat, gizonezko bat, emakumezko bat, gizonezko bat.... hurrenkera bete behar da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabe geratuko da Gobernu Kontseiluak 2004ko otsailaren 3an hartutako erabakia, UPV/EHUren Estatutuetako hirugarren xedapen iragankorra betetzeko xedez (2004ko otsailaren 10eko EHAA) Unibertsitateko Klaustroa hautatzeko arautegia eta egutegia egokitzekoa.

AZKEN XEDAPENA

Behin-behineko arautegi hau indarrean sartuko da argitaratzen den egunenaren biharamunean.

*Artículo 15.*– 1.– El Secretario o Secretaria General expedirá la credencial a cada uno de los candidatos y candidatas electas en un plazo no superior a quince días tras la proclamación definitiva de resultados.

2.– Las y los miembros electos podrán presentar su renuncia por escrito ante la Presidencia del Claustro. No obstante, la renuncia presentada en los 10 días previos a la reunión del Claustro Universitario sólo producirá sus efectos a partir de la terminación del citado Claustro. En este caso, se designará a la primera o al primer miembro no electo de su misma candidatura a quien se proveerá de la credencial correspondiente. La sustitución será comunicada al centro al que pertenezca el nuevo o la nueva claustral.

3.– Ningún candidato o candidata propuesta como electa en quien se constate la falta de concurrencia de las condiciones generalmente establecidas, podrá ser válidamente nombrado claustral.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Lo dispuesto en el artículo 9.1 será de aplicación en todos los supuestos en que en el correspondiente ámbito el porcentaje del sexo menos numeroso sea, al menos, del 25%. Cuando no sea éste el caso, las candidaturas deberán contener una proporción de hombres y mujeres tal que el grupo menos numeroso mantenga al menos un porcentaje de representación igual al existente en el correspondiente sector electoral del Centro o Campus, manteniendo el orden alternativo mientras sea posible.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el acuerdo del Consejo de Gobierno provisional de en su sesión de 3 de febrero de 2004 por el que se adecua la normativa y calendario para la elección del claustro universitario en cumplimiento de lo dispuesto en la disposición transitoria tercera de los estatutos de la UPV/EHU publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 10 de febrero de 2004.

DISPOSICIÓN FINAL

Esta Normativa provisional entrará en vigor al día siguiente a su publicación.